

## **BILBOKO UDALAK BESTE URRATS BAT EMAN DU ZAZPILANDA ETXALDEKO IRISGARRITASUNA HOBETZEKO**

- **Etxebizitza-multzoen ingurua berriro urbanizatu eta atarietako sarbideak hobetuko dira.**
- **Obra, Zerbitzu, Hiri Eraberritze eta Espazio Publikoaren Sailak milioi bi euroko inbertsioa egingo du inguru horretako auzotarren bizimoduaren kalitatea hobetzeko.**
- **Udalak lehen ere hobetu zuen Zazpilandaren eta Zorrotzaren arteko konexioa, igogailu bi eginda.**

*(Bilbon, 2017ko azaroaren 21ean).* Bilboko Udalak lanean dihardu jo eta ke Zazpilanda etxaldeko irisgarritasuna hobetze aldera. Azken urteotan, Udalak igogailu bi egin ditu (bata Usanditzaga Musikariaren kalean eta, bestea, Bidegainen) Zazpilanda eta Zorrotzako erdialdea lotzeko. 1,4 milioi euroko inbertsioa eragin zuten igogailuak hobekuntza handia izan dira auzotarrentzat; orain, berriz, Udalak proiektu hau jarri du abian irisgarritasuna modu integralean hobetzeko, atalondo guztietara iritsita.

Zenbait lanek osatzen dute milioi bi euroko inbertsioa beharko duen proiektu berri hau. Diru-kopuru handixkoa da Bilboko alde horretan bizi direnen bizimoduaren kalitatea hobetzeko erabiliko dena. Surbisa ere lanean ari da alde horretako etxebizitzak hobetzen.

Etxebizitza-multzoen ingurua berriro urbanizatu eta atarietako sarbideak hobetu, dauden arrapalak egokitu eta arrapala eta eskailera berriak egingo dira. Oinezkoentzako pasabide berriak ere egingo dira, euren irtengune eta guzti.

Surbisak lanean dihardu eremu honetan etxebizitzaren egoera hobetzeko. Etorkizunera begira, etxebizitzetan kanpoko igogailuak jartzea aurreikusi da. Hori gogoan hartuta, Udalak atari guztietarako oinezko ibilbideak diseinatu ditu.

Kanpoko igogailuak jarriko dira eraikinetan eta, hortaz, bertara bideratuko dira egingo diren arrapala eta eskailera guztiak-

### **16 JARDUKETA ZAZPILANDA IRISGARRIA EGITEKO**

Hauek dira egingo diren 16 jarduketak, zerbitzua emango dioten atalondoren arabera:

- 1. jarduketa. 5. atalondoko arrapala egokitzea: Zazpilandako etxaldeko bosgarren zenbakiko atalondora daraman arrapala egokituko da.
- 2. jarduketa. 8. eta 9. zenbakiko atalondoetara iristeko arrapalak egingo dira: arrapala berriak egingo dira 8. zenbakira iristeko. Horrez gain, oinezkoen pasabide berria egingo da.

- 3. jarduketa. 10. zenbakiko atalondora iristeko arrapalak eta espaloia egingo dira: arrapala berria egingo da 10. zenbakira iristeko.
- 4. jarduketa. 14. zenbakira daraman bidea egitea: bi metro zabaleko bidea egingo da 14. zenbakiko atalondora heltzeko.
- 5. jarduketa. 21, 22 eta 23. atalondoetarako arrapalak eta eskailerak egitea: alde bitatik egingo dira arrapalak eta eskailerak etxaldeko 21, 22 eta 23. atalondoetara igotzeko.
- 6. jarduketa. Arrapalak eta eskailerak egitea 24, 25 eta 26. zenbakiko atalondoetara iristeko, etxaldea zeharkatzen duen bidetik eta Zazpilandako erdialdeko egonlekutik. Horrez gain, oinezkoen pasabide berria egingo da arrapalen behealdeko sarbidearen ondoan.
- 7. jarduketa. Arrapalak eta eskailerak egitea 27, 28 eta 29. atalondoetara iristeko. Horrez gain, oinezkoen pasabide berria egingo da 5. atalondora jaisten diren eskaileren aurrealdean.
- 8. jarduketa. 30. eta 31. atalondoetarako sarbideak egitea eskaileren eta arrapalen bidez.
- 9. jarduketa. 32, 33, 34, 35 eta 36. atalondoetarako sarbideak egitea eskaileren eta arrapalen bidez.
- 10. jarduketa. 37, 38 eta 39. atalondoetarako sarbideak egitea. Arrapalak eta eskailerak egingo dira Zazpilanda etxaldeko atalondo horietara iristeko.
- 11. jarduketa. 40 eta 41. atalondoetarako sarbidea egitea. Arrapala egingo da, gaur egun dauden maila biak kenduta, atalondo bi horietara iristeko dauden eskailerekin konektatuta.
- 12. jarduketa. Sarbide berriak egitea 42, 43 eta 44. atalondoetara. Arrapala eta eskailera berriak egingo dira aipatutako atalondoetara iristeko.
- 13. jarduketa. Arrapalak eta eskailerak egitea zenbait aldetatik 45, 46 eta 47. atalondoetara iristeko.
- 14. jarduketa. Eskailerak egitea Zazpilanda etxaldeko 32. atalondora iristeko Aldapeta etxaldetik.
- 15. jarduketa. Espaloiak zabaltzea eta irtenguneak egitea Aldapeta etxaldeko biribilgunean.

- 16. Jarduketa. Etxaldeko zenbait fatxadatako hezedurak kentzea.

## **AUZOKIDE PLANA**

Proiektu hau fase bitan gauzatuko da; lehenengoa berehalaxe jarriko da abian, aurtengo Auzokide Planean baitago sartuta. Fase honetan, 5, 8, 10, 14 eta 21etik 31ra arteko atalondoetako eta Aldapeta etxaldeko biribilguneko irisgarritasuna hobetzeko lanak egingo dira. Obraren aurreneko fase honetako epea hiru hilabetekoa da.

Gainerako jarduketak lehenengo fase hau amaitzen denean egingo dira. Guztira, Udalak milioi biko inbertsioa egingo du Zazpilanda etxaldea hobetzeko.

## **EL AYUNTAMIENTO DE BILBAO DA UN PASO MÁS EN LA MEJORA DE LA ACCESIBILIDAD DEL GRUPO ZAZPILANDA**

- Las obras contemplan la reurbanización de los entornos de los grupos de viviendas, y la mejora de los accesos a los diferentes portales.
- El Área de Obras, Servicios, Rehabilitación Urbana y Espacio Público invertirá 2 millones de euros más en mejorar la calidad de vida de los vecinos de esta zona.
- El Consistorio mejoró ya la conexión de Zazpilanda con Zorrotza con la construcción de 2 ascensores.

*(Bilbao, 21 de noviembre de 2017).* El Ayuntamiento de Bilbao continúa en su afán por mejorar la accesibilidad del Grupo Zazpilanda. En los últimos años, el Consistorio ha construido 2 ascensores (uno en Músico Usandizaga y otro en Bidegain) para conectar Zazpilanda con el corazón de barrio de Zorrotza. Los elevadores, en los que se invirtieron 1,4 millones de euros, han supuesto una importante mejora para los vecinos y vecinas, y ahora el Ayuntamiento pone en marcha este proyecto gracias al cual se mejorará la accesibilidad de manera integral llegando a cada portal.

El proyecto que arranca ahora está compuesto de distintas actuaciones, en las que el Ayuntamiento tiene previsto invertir casi 2 millones de euros. Se trata de una importante cifra para mejorar la calidad de vida de las personas que viven en esta zona de Bilbao en la que también Surbisa está trabajando en la mejora de las viviendas.

El proyecto contempla la reurbanización de los entornos de los grupos de viviendas, mejorando los accesos a los diferentes portales, acondicionando las rampas existentes, y mediante la ejecución de nuevas rampas y escaleras. También se van a realizar nuevos pasos de peatones con sus correspondientes orejetas.

Una zona en la que también está trabajando Surbisa para mejorar el estado de las viviendas. Se contempla que en un futuro, las viviendas coloquen ascensores exteriores. Teniendo eso en cuenta, el Ayuntamiento ha diseñado todos los itinerarios de los accesos a los portales.

Está previsto que se coloquen ascensores externos en los edificios por lo que todas las rampas y escaleras que se van a construir conducirán a los mismos.

### **16 ACTUACIONES PARA UN ZAZPILANDA ACCESIBLE**

Estas son las 16 actuaciones que se van a llevar a cabo, divididas como se indica a continuación en función de los portales a los que van a dar servicio:

- Actuación nº1. Acondicionamiento rampa al portal nº5: Se va a acondicionar una rampa existente para el acceso al portal número cinco del grupo Zazpilanda.
- Actuación nº2. Ejecución de rampas para acceder a los portales número 8 y 9: Se van a realizar unas nuevas rampas para acceder al portal número 8. Además, se ejecutará un nuevo paso de peatones.
- Actuación nº3. Ejecución acera y rampas para acceder al portal nº10: Se van a realizar una rampa de acceso al portal número 10.
- Actuación nº4. Ejecución camino al portal nº14: Se va a realizar un camino de dos metros de anchura para llegar al portal número 14.
- Actuación nº5. Ejecución rampas y escaleras para acceder a los portales nº 21,22 y 23. Se van a disponer rampas y escaleras desde dos frentes distintos para subir hasta los portales número 21, 22 y 23 del grupo.
- Actuación nº6. Ejecución de rampas y escaleras para acceder a los portales número 24, 25 y 26, tanto desde el vial que atraviesa el grupo como desde la zona estancial central de Zazpilanda. Además, se ejecutará un nuevo paso de peatones junto al acceso inferior de las rampas.
- Actuación nº7. Ejecución de rampas y escaleras para dar acceso a los portales 27, 28 y 29. Además, se ejecutará un nuevo paso de peatones frente a las escaleras que bajan al portal nº 5.
- Actuación nº8. Ejecución de acceso a los portales nº 30 y 31 a través de escaleras y rampas.
- Actuación nº9. Ejecución de acceso a los portales nº 32, 33, 34, 35 y 36 a través de rampas o escaleras.
- Actuación nº 10. Ejecución de acceso a los portales nº 37, 38 y 39. Se van a disponer rampas y escaleras para acceder a los mencionados portales del grupo Zazpilanda.
- Actuación nº 11. Ejecución de acceso a los portales nº 40 y 41. Se va a disponer una rampa, eliminando dos escalones existentes, que conecta con la escalera existente para acceder a estos dos portales.
- Actuación nº 12. Ejecución de nuevos accesos a los portales nº 42, 43 y 44. Se van a ejecutar nuevas rampas y escaleras para subir a los portales mencionados.
- Actuación nº 13. Ejecución de rampas y escaleras desde diferentes frentes para acceder a los portales nº 45, 46 y 47.

- Actuación nº14. Ejecución de escaleras de acceso al portal nº32 del grupo Zazpilanda desde el grupo Aldapeta.
- Actuación nº15. Ampliación de aceras y ejecución de orejetas en la rotonda del grupo Aldapeta.
- Actuación nº 16. Eliminación de humedades en ciertas fachadas del grupo.

## **AUZOKIDE PLANA**

Este proyecto se realizará en dos fases, la primera arranca ya, está ya incluida en el Auzokide Plana de este año, y supone la ejecución de las actuaciones que dotarán de mayor accesibilidad a los portales número: 5, 8, 10, 14, 21 a 31 y de la rotonda del Grupo Aldapeta. El plazo de esta primera fase de la obra es de tres meses.

Las actuaciones previstas pendientes se realizarán una vez terminada esta primera fase. En total, el Ayuntamiento invertirá 2 millones de euros en la mejora de Grupo Zazpilanda.